

GORROTO HAUT



Egilea:
E. G. ikaslea
2003-2004

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------------------------|----|
| <i>Idazleak</i> | 3 |
| <i>Sarrera</i> | 5 |
| <i>Baliabideak</i> | 5 |
| <i>Egituraketa</i> | 5 |
| <i>Shgsysywsqws</i> | 6 |
| <i>Morroia</i> | 7 |
| <i>Horregatik egin dut</i> | 9 |
| <i>Eskelarako</i> | 10 |
| <i>Oswald Frei Northomb</i> | 11 |
| <i>Delenda est Ozakildetza</i> | 12 |
| <i>Sritzi orokorra</i> | 13 |
| <i>Bibliografia</i> | 13 |

GORROTO HAUT

**EGJLEA: Hamabi idazle ezberdin aritu dira Gorrotto Haut izeneko liburu honetan lanean. Bakoitzak gorrotoari buruzko gaiaren inguruan istorio bat idatzi du. Horrela Javi Cillero, Unai Elorriaga, Aingeru Epaltza, Hasier Etxeberria, Aritz Gorrotxategi, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Iturbe, Karlos Linazasoro, Joxean Sagastizabal, Kirmen Uribe, Iban Zaldúa eta Patxi Zubizarreta idazleek "Gorrotto Haut" idazlana osatu dute bakoitzak bere istorio pertsonala gehituz.*



Unai Elorriaga Bilbon jaio zen 1973an, hala ere Algortan bizi izan da beti.

Filologian lizentziatua da eta Labayru Institutuan itzultzaile gisa ari da lanean. Zenbait egunkaritarako ere idazten du.

Bere obra garrantzitsuenak "Sp-rako Tranbia", "Literatur ideia batzuk" eta "Van 't Hoff-e ilea" izeneko idazlanak dira.

Aingeru Epaltza Iruñean jaio zen 1960an. Kazetaritzan lizentziatua da eta Nafarroako Gobernuko Itzultzailea da. Antzerkigintzan aritu zen.

Sari batzuk irabazi zituen ondoren aipatuko ditudan lanekin: "Sasiak eta begiak baditik", "Ur uherrak" eta "Tigre ehizan" izeneko idazlanekin. 1990ean Ricardo Arregi Kazetaritza saria ere irabazi zuen.




Juan Kruz Igerabide Adunan jaio zen 1956an. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da eta umeentzako literaturan aditua da.

Bere lan famatuenen artean, "Sarearen lehia", "Herrenaren arrastoan" eta "Jonas eta hozkailu beldurtia" lanak aurrki daitezke.

Arantxa Iturbe, Alegian jaio zen 1964an. Gipuzkoar kazetari eta idazlea da, eta Nafarroako Unibertsitatean kazetaritza ikasi zuen.

Argitarapen ugari egin ditu Euskaldunon Egunkarian, El Mundon eta beste zenbait tokitan. Bere lanak, "Goizean behin" eta "Ai, ama", idazlanak dira eta baita irratirako nobela bat "Maite, maite, maitea" izenekoa.



Karlos Linazasoro Tolosan jaio zen 1962an. Euskal filologia ikasi zuen Donostian eta gaur egun Tolosako Udal liburutegian ari da lanean.

Bere lanik garrantzitsuenak dira esaterako: "Spuin arriskutsuak", "Euriaren eskuak" eta beste asko. Ez du bakarrik gazte literatura landu, nagusientzako literatura ere landu du.

Joxean Sagastizabal 1956an jaio zen Eibarren. Ekonomi eta maisu ikasketak egin zituen. Gaur egun euskara irakaslea da. Bere lanen artean, "Jolasean", "Paixibo" edo "Kutxidazu bidea Txabel" aurki ditzakegu. (Ez dudanez idazlearen argazkirik aurkitu, "Kutxidazu bidea Txabel-en" portada jarri dut argazki gisa)



*SARRERA: Hasieran aipaturiko hamabi idazleei, gorrotoaren inguruko idazlan bat bana egiteko eskatu zitzaaien. Hortaz, bakoitzak, gorrotoarekin zerikusia duen istorioa kontatzen du, era batera edo bestera.

Lehen atalean, bikote bat beste bikote baten zain dago denbora luzean; bigarrenean, aldiz, gizon bati errakuntzaz heltzen zaion gutunaren ingurukoa da; hirugarrena, berriz, alaba bat eta bere mutil lagunaren eta bere aitaren arteko gorabeherak kontatzen dira; eta horrela idazlan osoan zehar.

Alegia, bakoitzak gorrotoa bere ikuspuntutik begiratuta hartu eta kontaketa pertsonala idatzi du.

*BALIABIDEAK: *Gorrito Haut* nobela honetan, ezin daiteke esan, narrazioa nagusi dela, idazle bakoitzak era batean idaztea du gustuko eta horregatik kontaketa bakoitza ezberdina da.

Esaterako, Javi Cillerok eta Joxean Sagastizabalek elkarriketaren bidez kontatu dute istorioa, irakurtzeko momentua eta kontaketa erakargarriagoa eginez.

Aldiz Aingeru Epaltzak, oso ondo deskribatzen ditu pertsona, nahiz gauzak, Morroia idazlanean erabili baititu deskribapen sakonak.

Eta narrazioaren inguruan, Unai Elorriaga daukagu. Unai bere kontakizuna narrazio zuzen batean idatzi du, horrek narrazioari geldotasuna ematen dion arren.

Beraz, laburbilduz, baliabide ugari ageri dira *Gorrito haut* liburu honetan.

*EGITURAKETA: Idazki honen kontaketa oso bitxia dela esan daiteke. Kontaketa bakoitza era linealean narrotuta dagoela esan daiteke, baina elkarren artean ez dago inolako erlaziorik, egituraketaren inguruan, 12 idazle ezberdinek ez baitute berdina idatziko.

SHGSYSYWSQWS Unai Elorriaga

*KOKAPENA: Ez da azaltzen lekuari buruzko zehaztasunik atal honetan. Hala ere, ez da garrantzitsua zehaztasun hori. Badago, ordea, denborari buruzko datu bat. Urtarrilean gertatzen da istorio hau, urtarrilaren 27a aipatzen baita.

*GAIA: Errakuntzaz gizon bati gutun bat bidali egiten diote non zine zuzendaria den esaten dioten, eta azkenean errakuntza dela konturatzen da; baina zera ere ikusten du, berea ez dela izan errakuntza bakarra.

*ARGUMENTUA: Izenik gabeko gizon batek (izen gabea da, idazleak ez baitu zehaztu izena) Akademiatik gutun bat jasotzen du. Bertan zinema zuzendari izendatu dutela jakinarazten diote. Birus baten erruz mezua ailegatu dela jakin arren, bere tituluaren bila joan da eta han beste pertsona ugari agertu dira titulu beraren eske.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Gizon batek “email” baten bidez mezu bat jaso du. Bertan zine zuzendari dela esaten diote eta berak sinistu egiten du hasiera batean, arraro xamarra iruditzen zaion arren. Arraroa da gizonarentzat, bera bezalako 48 urteko gizon bati halako titulua eskaintzea, kontuan hartuta berak ez duela ideiarik ere zinemari buruz. Susmo txarra hartzen dio eta azkenean konturatzen da birus batek bidalitako gutuna dela hori. Baina ez da gure gizona gutuna jaso duen bakarra, beste 47k jaso dute gutuna.

Horrela urtarrilaren 27an 48 pertsona elkartzten dira haien zinema zuzendari titulua hartzekotan. Zine zuzendaria bihurtu eta gure gizonak erabaki sendoa hartzen du, orain arte egin ez duena, zinema mundua ezagutzen hasiko da. Horretarako gorroto baten beharra ikusten du, zine zuzendari onenek badute eta gorroto bat telebistan agertzen direnean esateko. Zahar-etxeetan zehar doa gorroto bila bertan gorroto ugari baitaude eta azkenean aurkitzen du bere gorrotoa: zaurietan putz egiten ez duten erizainak izango dira bere gorrotoa, eta horietaz arituko da prentsan eta telebistan

*PERTSONAIAK: Pertsonaia nagusia dugu izenik gabeko gizona. Badakigu ordea 48 urte inguru dituela eta oso gizon bakartia dela. Zinemaz oso gutxi dakitenetako bat da; hala ere, bada bera baino gutxiago dakienik. Errakuntzei aurre egiten dakiela susma daiteke, gainera bere izendapen berriarekin bat egiteko prest dago, ezer edo ia ezer jakin gabe. Ikasteko gai dela esan daiteke; hala ere, arraro xamarra dela esan dezaket, gorroto baten bila joatea ez baita burutik zeharo sano egotea.

Ageri da beste pertsonaia bat, baina ezin daiteke esan bigarren mailakoa denik. Berari buruz agertzen den gauza bakarra gure izenik gabeko gizonak egiten duen deskribapena da. Berak dioenez, belarri bat ñimiñoa omen du eta bestea handiegia.

*IRITZIA: 17. orrialdeko atal hau aukeratu dut: «Zine kontuetan ginen inkompetenteak gu. Inkompetente konpletoak. Ez nintzen ni txarrena, baina. Bizitza osoan zine batera sartu gabeko bat ere bazen han. Betaurreko lodiak zituen, hala ere. Belarri bat txikia zeukan, arbuigarria ia, ileek janda. Bestea, berriz, amama-belarria zen, handia; bere buruaz harro zegoen beste belarria, hitz batean esan behar bada...». Erakargarria iruditu zait bere burua eta beste gizonarena deskribatzeko era. Baina batez ere bere buruaren ezjakintasunaren deskribapena gustatu zait.

Atal hau oro har interesgarria egin zait irakurtzeko momentuan, barregarria izateaz gain, bizitzako arazo bat azaltzen du eta.

MORROIA
Aingeru Epaltza

*KOKAPENA: Denborarekiko kokagune bat ageri da baina ez da oso garrantzitsua, apirilaren 4a aipatzen du, Maddi protagonistetako baten urteak baitira. Lekuarekiko aipamen bakarra, mutil lagunaren jaioterriak dira, baina ez du zehazten protagonisten hiriaren izena.

*GAIA: Aita batek bere alabaren mutil lagunaren inguruko gorabeherak azaltzen dira pasarte honetan, eta zer-nolako gorrotoa dien alabak izandako mutil lagun guztiei.

*ARGUMENTUA: Maddi zeneko neska baten aitak ez ditu begi onez ikusten bere alabak aukeratzen dituen bikote lagunak. Horietako bakoitzari zerbait txarra sumatzen dio, eta horregatik nahi du bikotea bana dadin. Hemen Maddiren bikoteen berri ematen zaigu eta aitak horiekiko duen iritzia ere, baita aitaren ekintzak ere.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Harkaitz izeneko mutil bat aipatzen du kontakizunak. Harkaitz da beraz Maddiren lehen mutil laguna. Motordun mutiko lasaia omen da aitaren ustean. Gau batean motor istripua izan zuen Harkaitzek eta atzean zeraman neska antzinako neska laguna omen zen; beraz, hortxe bukatu zen Maddi eta Harkaitzen arteko harremana, Maddiri esana baitzion ikasten igaroko zuela gaua.

Beñat aipatzen du ondoren idazleak, mutil hotza dela dio Maddiren aitak eta alabaren eta Beñaten harremana bukatu omen zen mutilak hiritik alde egin zuenean, exekuzio baten inguruko pankarta bat zeramala eta kotxe bat kiskalita agertu zelako.

Jon izan zen Maddiren hurrengo amodioa, Jon mendizalea zen eta behin bera eta Maddi mendira joan ziren eta mutilak Maddi bakarrik utzi zuen lurretik 200 metrora, neskaren erruz gailurrera ez zela ailegatuko esanez.

Alvaro da idazleak aipatzen duen azken mutil laguna. *Opus*-en ikasten zebilen eta Espainiakoa omen zen, euskaraz txintik ere hitz egiten ez zuena eta Euskal Herrian ezer oso zegoela eta alde egitea aipatua zuen jadanik. Maddiren aitak pentsatua zuen jadanik morroiaz libratzeko plana, baina azkenean ez zuen erabili behar izan.

*PERTSONAIAK: Maddi eta bere aita dira pertsonaia nagusiak. Maddi oso pertsona fidakorra da eta horregatik izan ditu kontaketa zehar dezepzio ugari bere mutil lagunekin.

Maddiren aita, zeinen izena agertzen ez den narrazioan zehar ez da batera fidakorra; aldiz, zeharo mesfidatia da bere alabaren (azukre koxkorraren) lagun mutilen inguruko kontuetan.

Amari buruz ez dago zehaztasunik, esan daiteke ez diola alabari min egin nahi, nahiz eta bere onerako izan.

Harkaitzek mozolo aurpegia duela esaten du Maddiren aitak. *Piercing*-ak zituen aurpegian, eta oinak arrastaka eramanez ohi zituen.

Beñat, lagunaren artean Para deitua zen. Begirada hotzekoa omen zen eta piura narratzekoa ere.

Jon mendizale amorratua zen, literaturaz eta musikaz jakitun zen eta oso zuzen hitz egiten zuen. Azkenean ez da dena zirudiena bezalakoa.

Alvaro Espainia aldeko gaztea da eta euskararekiko harremana nulua da. Gainera, beldurra dio Euskadin bizitzeari.

*IRITZIA: Kontakizun honetan gehien harritu nauena deskribapenen aberastasuna izan da; horregatik 23. orrialdeko zatitxo hau aukeratu dut: «...*Harkaitz zorionekoa Burlatako ale peto-pettoa zen. Bekain-belarri-kokotsetan bi-hiru libera uztai eramaten zituen apaingarri, eta mihian ere zerbaitek egin izanen zion traba: behin ere ez nion “bai” edo “ez” baino arrazoi handiagorik aditu, gu etxean ginela agertu zen aldi bakanetan...*».

Deskribapenaren aberastasuna ez da harritu nauen bakarra, hiztegi oparoa erabiltzen du idazleak eta oso aberatsa gainera; eta horrek errazagoa egiten du irakurketa.

Atal hau oro har interesgarria egin zait irakurtzeko momentuan, barregarria izateaz gain bizitzako arazo bat ere azaltzen du eta.

HORREGATIK EGIN DIOT Juan Kruz Igerabide

*KOKAPENA: Pertsonaia nagusiaren gaztarotik heldutasun arora doakigu istorioaren kokapena. Istorioaren hasiera bere gaztaroan dago eta amaiera heldutasunean. Lekuarekiko ez da daturik agertzen, ez delako garrantzitsua.

*GAIA: Homosexuala den mutil baten maitasunaren ingurukoa da istorioa eta baita bere maitasun horrekin bukatzearen inguruan.

*ARGUMENTUA: Gure pertsonaia nagusiari mutil bat aurkezten diote eta denbora gutxian biak maitemindu egiten dira. Gure mutila ez dute etxean onartzen homosexuala izateagatik eta are gutxiago bere mutil laguna onartu. Denbora pasatu ahala, protagonistaren amak esaten dio semeari bere mutil laguna ez duela fidagarria ematen baina honek ez dio kasurik egiten. Azkenean, mutil laguna utzi behar du.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Gure mutilaren lagun batek, beste mutil bat aurkezten dio eta honek muxu ematen die biei ezpainenetan. Protagonistak eta lagun berriak elkarrekin denbora ugari igarotzen dute eta maitemindu egiten dira. Hasiera batean, muxu laburrak ematen dituzte eta azkar elkarrengandik aldentu ere, baina denbora pasatu ahala, ez dute lotsarik sentitzen eta kalean zehar eskutik hartuta doaz eta edozeinen aurrean ematen diote muxu elkarri.

Gure protagonistaren etxean ez dute begi onez ikusten bere semearen bikotea, batez ere amak, eta amak semea ohartarazten saiatzen da, baina honek ezin ditu bere mutil lagunaren muxuak utzi. Behin baino gehiagotan saiatzen da mutil lagunarekin duen harremana bukatzen baina ez du lortzen. Azkenean, harremana hausten du etxera itzultzen eta konturatzen da azkenean bere amak arrazoiak zuela.

*PERTSONAIAK: Pertsonaia nagusia mutil homosexual bat, bere sexualtasuna ezkutatu behar ez duena. Berak dioenez, lotsatia zen bere mutil lagunarekin harremana hasi aurretik. Nortasun ahulekoa ere ba omen da eta bere mutil laguna salbazioa dela uste du. Ez du familian konfiantzarik, bere maitasunean soilik du konfiantza.

Bere mutil lagunari buruz ez du askorik zehazten, pertsonaia nagusia ikasketetarako eta irakurtzera bultzatzen duela soilik.

Ama, ez da oso mesfidatia da, eta baitu uste bere semearen mutil laguna pertsona ona denik.

*IRITZIA: 58. orrialdeko zati hau aukeratu dut: *“Ez naiz orain amari aitzakia botatzen hasiko, baina batzuetan iruditzen zait hark gozoago tratatu izan banindu ez nintzela eroriko maitale banpiroaren atzaparretan. Susmoa dut, hainbeste musukatu behar hori..., ez dakit, ez ote den izango behar bezainbat titi eman ez zidalako...”*. Oso atal bitxia iruditu zait hemen aukeratu dudana. Ezin zehaztu dezaket zergatik gustatu zaidan, baina zeharo bitxia iruditu zait. Beharbada, aitzakia txotxoloa delako aukeratu dut edota esateko era ezberdin bat delako, ez dakit, esan dezakedan bakarria, gustatu zaidala da, eta ez bakarrik zatitxo hau, istorio osoa baizik, oso freskoa eta erakargarria iruditu zait.

ESKELARAKO

Arantxa Iturbe

*KOKAPENA: Garrantzizko datuak ez direla bistan dago, alegia denborazko edota lekuko kokapenak, ez baitu istorio osoan horri buruzko ezer aipatzen.

*GAIA: Urkatu berri den emakume baten eskelaren inguruko kontaketa dela esan daiteke, hildakoaren postuan lanean ari den neskak gidatzen delarik eskelaren kontua.

*ARGUMENTUA: Enpresa baten zuzendariaren idazkaria, zuzendariaren bulegoan urkatu egiten da eta honek neska ikusi eta beste lankide bat izendatzen du libre geratu den postua betetzeko. Idazkari berriak denbora baten buruan, eskelaren inguruko komentarioa egin eta denak ez dira konturatzen bere eskela propioaz hitz egiten ari dela.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Marian izeneko neska batek bere burua urkatzen du enpresako zuzendariaren bulegoan, honek ez baitzion tratu onik ematen. Zuzendariak neska urkatua ikusi eta segituan beste neska bati ematen dio hildakoaren lanpostua. Neska berri honek eskelaren kontua aipatzen du, eta zuzendariak ez dio jaramonik egiten, eta bere kideak, bi taldetan banatzen dira, bata ezer ordainduko ez duen taldea eta bestea “azkenean” hitza idatzita jarri nahi dutenak.

Idazkari berriak kutxatxo bat jartzen du bere mahai gainean eta hurrengo idazkaria izango denari buruz zera pentsatzen du, idazkari ona izango dela.

*PERTSONAIAK: Idazkari berria da pertsonaia nagusia, ez du izenik zehazten kontaktak, ezin dut zehaztu nolakoa den pertsonaia hau, nik neuk ez baitakit. Marian da beste pertsonaia bat, hildakoa alegia. Esan daiteke bizitzaz kokoteraino zegoela eta ezin zuela gehiago jasan bere inguruan gertatzen ari zena.

Zuzendaria, ez da gizon sentikorra, guztiz kontrakoa, ez dio eraginik egiten, bere idazkaria hilik aurkitzea eta gainera ez da langileekin atsegina.

*IRITZIA: 63. orrialdeko narrazio ataltxo bat hartu dut honako honetan. «*Bere agindu zuzenetara lanean hasi nintzen egun berean egin zidan mehatxu...*». Hautatutakoa laburra izan arren, oso esanguratsua dela uste dut. Ikus daitekeenez tirania edonon aurki daiteke, baita lanean zaudenean ere, eta horrek harritu egiten nau, nahiz eta badakidan, gaur egun badaudela horrelako arazoak.

OSWALD FREI NOTHOMB

Karlos Linazasoro

*KOKAPENA: XX. mendean kokatzen da istorioa hau, 1968 arte zehazki. New York hiria aipatzen da kokagune nagusi gisa, hala ere, Italia, Frantzia eta Estatu Batuak ere aipatzen dira.

*GAIA: Oswald Frei Nothomb-ek Marcel Duchamp-en izan zuen eragina azaltzen du kontaketak.

*ARGUMENTUA: Oswald izeneko gizon batek, Marcel izeneko gizona ezagutu eta bere arte lanaren inguruko elkarrizketak izaten dituzte xakean jokatzeko zuten bitartean. Oswald-ek eragin handia izan omen zuen bere lagun bilakatu zen Marcel-engan.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Oswald Frei Nothomb izeneko gizon bat 1890ean jaio zen Erroman. Alexander Graham Bellen adiskide eta laguntzaile izan zen. Berarekin *mamy* esaten zuen panpina asmatu zuen.

Estatu Batuetara heldu zenean, Marcel Duchamp eta Man Ray ezagutu zituen. Duchamp-en artelanak inork ez bezala interpretatu zituen eta lagun bilakatu ziren. Artistaren etxean ordu amaigabeak ematen zituzten xakera jokatzeko eta artelanen inguruan hitz egiten. Oswald oso esanguratsua izan zen Duchamp-en artelanetan.

Oswald Duchamp baino lehenago hil zen, 1968ko urrian alegia, Neully-sur-Seine-en.

*PERTSONAIAK: Oswald FreiNothomb oso pertsona atsegina zela ematen du, Graham Belli lagundu eta bere lagun izan zen Duchamp-i ere laguntza eskaini zion artistari artelanen iritzia eskainiz.

Duchamp-en inguruan esan daitekeen gauza bakarra zera da, bere lanaren inguruko kritikak onartzen zekiela.

*IRITZIA: 65. orrialdeko zatitxo hau aukeratu dut: “*Nahikoa eta soberakoa litzateke, berriz diot, Frei Nothombek liburukiotan erakusten duen erudizio maila edozein entziklopediatan leku garrantzitsu bat izan dezan...*”. Zati hau aukeratzearen zergatia, pertsona bat entziklopedia batean agertzearen nahiaren ondorioa da. Gauza garrantzitsuak egin dituen milioika jende egon da munduan eta ez dira entziklopedietan agertzen; beraz, uste dut ezin daitekeela esan idazleak esaten duena. Baina mundu aske batean gaudenez, esan dezala nahi duena, inork ez baitio eragotziko.

DELENDIA EST OZAKILDETZA
Joxean Sagastizabal

*KOKAPENA: Ez dago kokapenik adierazten duen datu bakar bat ere.

*GAIA: Potroen eta zakilaren inguruko gaia jorratzen da kontakizun honetan.

*ARGUMENTUA: Ozakildetzen aurkituriko artxibo baten kasuak dira kontaketa honetan agertzen direnak. Gizon ezberdinek zakilarekin edota potroekin dituzten arazoak azaltzen ditu.

*GERTAKIZUN NAGUSIAK: Lehenengo gaixoari barrabilak eta zakila zeharo ezkututzen zaizkio, medikuak akonoaren sindromea dela dio.

Bigarrenak kanguruaren sindromea dauka, barrabilak zakilaren gainean alegia.

Hirugarrenak aldiz, bi indar borrokan ditu, bere izatez ezkerrekoa da politikoki eta zakila aldiz eskuinera okertzen zaio.

Laugarrenaren arazoa hurrengoa da, ez zaio tentetzen, galtzontzilo ikurrindunak oparitu baitzikio emakumeak, bera abertzalea da gainera.

Bosgarrenak tentealdi errepublikanoak jasaten ditu.

Seigarrenaren arazoa harreman arazoa da, bi barrabilak ez dute harreman ona elkarrekin.

Zazpigarrenak eta azkenak, potroekin pentsatzen duela eta dago kezkatutik.

*PERTSONAIAK: Potro eta zakilarekin arazoak izan dituzten gaixoak dira pertsonaiak, eta baita arazo horiek konpontzen saiatzen den medikua ere.

*IRITZIA: 75. orrialdeko azalpena aukeratu dut nik orain. «*Kasuak Ozakildetzako mediku baten artxibokoak dira, errauts artean aurkitutakoak. Erakunde nardagarria Vesuvioaren 2034ko erekzioak kiskali zuen*». Datu gisa oso barregarria iruditu zait hori. Orokorrean oso pasarte ona iruditu zait, barregarria zeharo, gehien gustatu zaidana da honako atal hau.

*IRITZI OROKORRA: *Goroto haut* idazlan hau oso erakargarria egin zait, oso bitxia iruditu zaidalako duen titulua, Goroto haut. Asko gustatu zait, Aritz Gorrotxategiren idazteko era, bere istorioa ez lantzea erabaki dudana arren.

Istoriorik harrigarriena aldiz, Javi Cillerorena izan da, aipatu beharra dut oraindik ez dudala zeharo ulertzen. Hala ere, irakurtzeko polita iruditu zait. Oso era polita iruditu zait, egin duen deskribapena, zain egoteari buruzkoa.

Baina bakarra aukeratu behar banu, Joxean Sagastizabalena aukeratuko nuke. *Kutxidazu bidea Ixabel* lana asko gustatu zitzaidan eta hau ez da exkaxagoa. Barre algaraka ez naiz egon, irakurtzen jarraitzeko gogoia nuelako.

Beraz, ondorio gisa zera esango dut: Idazlan hobeak irakurri ditut, baina nik uste dut ez direla inola ere hain aberatsak izan, ez baititu idazlan honek bezala 12 idazle ezberdinen istorioak batu. Irakurtzeko erraza denez, irakurle ez denari baina irakurtzeko beharrez dagoenari gomendatzen diot, baina baita beste edonori ere, ez baita gutxi batzuentzako liburua, denok irakurtzeko modukoa baino.

BIBLIOGRAFIA

**Lur Hiztegi Entziklopedikoa*; askoren artean, LUR argitaletxea.

*Google; interneteko bilatzailea.

-Argazki gunea

-Informazio gunea